

Hainbat ikasle euskaldunek daramagu zure ahotsa buruan, etengabeko oihartzun goxoa balitz bezala.

Zalantzak non, Asun beti han!! Askok euskara ama-hizkuntza bezala dute; beste askok, berriz, zu izan zaitugu. Zorigaitzez, euskara- zaintzaile aparta galdu du herri honek, eta zure berri izanda, denok sentitu gara umezurtz. Zorionez, zuk osatutako familia sendoa da oso, eta prest gaude zure testigantza geure egiteko eta beraren alde lan egiteko.

Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren goiburuak zera dio: “eman ta zabal zazu” eta zuk hori egin zenuen, hain zuzen ere, beti eskuzabaltasunez, hurbiltasunez eta alaitasunez.

Mila esker euskarari hegoak emateagatik. Ezagutu zaitugun guztiok nekez ahaztuko zaitugu.

Goian zaude, Asun

Hainbat maite zaitugun ikasle horiek